

## JESUS ETA ARTZAINAK

1

Mila aingeru kantari:  
"Aintza goietan Jaunari  
eta bakea lurrean gogo  
oneko danari".  
Zer zorion ta pozkari,  
aingeruak albistari:  
Jesus jaio dan barri emonaz  
artzain-aldeari.

2

"Zoaze bai Belenera  
azkar guztiok batera,  
jaiobarri dan Ume polita  
pozik ikustera.  
Jo txabola estalpera,  
asto-idien artera;  
zapi zuritan batuta dago  
Mesias berbera.

3

Hau artzainen zoramena,  
hau txikien sinismena!  
Oihu, irrintzi, salto ta brinko  
hor doaz Belena.  
Mendian entzun dabena,  
halantxe dago den-dena;  
lurrean ahuspez gurtuten dabe  
Ume ederrena.

4

Artzain misiolariak  
gaueko albistariak,  
maitasun haundiz eskeintzen deutsez  
euren opariak.  
Belengo gertakariak  
Jainkoaren mirariak,  
ezer be ezin dabe ulertu  
Joxek ta Mariak.

5

Ez da izan ostaturik,  
ez laguntzeko eskurik;  
mendian izan ezik ez dauko  
jaiotza-lekurik.  
Ba ete dago modurik,  
bihotzik edo bururik,  
apurtu barik konpondu daiken  
holako mundurik!

6

Ederrak dira dotrinak,  
aurrerapenak bikainak;  
baina mundu hau ez dau onduko  
ahaltsuen makinak.  
Ez erronka ta mitinak,  
bai txikien ahaleginak;  
hau erakusten deusku Belenen  
gizaki eginak.